

CALCUTA ONDOAN



TOPAKETA DELHIN: ELKARRIZKETA, ELKARLANA ETA GENERO BERDINTASUNA

Irailaren 3an eta 4an, Delhin topaketa berezi bat egin zen. Ez zen gailur politiko bat, ezta kongresu akademiko klasiko bat ere. Reframe zen: *Elkarrizketa, Elkarlana eta Genero-Berdintasuna* lelopean. Xedea ideiak mahai gainean jartzea, eztabaida deserosoak piztea eta, batez ere, berdintasuna imajinatzeko modu berriak sortzeko espazioa. Kalkutatik ere bertaratu zen Jaime Sotomayor, gure langile atzerriratua, partekatu ziren esperientzietatik ikasteko eta lurraldeko ikuspegia zabaltzeko.

Topaketa Breakthrough India GKEak antolatu zuen. Erakunde horrek sarean egiten du lan beste erakunde batzuekin batera, hala nola gure tokiko bazkidearekin, hau da, Swayam-ekin. Bi egunez, leku hori elkargune bihurtu zen: funtzionario publikoak, enpresak, gizarte kolektiboak, artistak, kazetariak, gazteak eta aktibistak Indiako azpikontinenteko txoko guztietatik elkartu ziren. Helburua: genero-arauak aurrez aurre begiratu eta zalantzan jartzea.

Deserosoak diren eztabaidak, argia ekartzen duten elkarrizketak

Mahainguruetan gai askotarikoak nahiz premiazkoak jorratu ziren: hezkuntza inklusiboa, emakumeen parte-hartzea lan munduan, generoaren arabera sentikorrak diren osasun-sistemak, kultura poparen indarra eta gazteek gidatutako kontakizunak.

Hasieratik argi geratu zen honakoa: genero-indarkeria ez da gertakari isolatua, aitzitik botere-sistema gurutzatuen ondorio zuzena da — patriarkatua, kasta, erlijioa — eta horiek, elkarrekin, isilarazi eta baztertu egiten dute. Honako ideia behin eta berriro errepikatu zen: ez badira desberdintasunaren sustraiak mugitzen, edozein politika azalean geratzen da. Eta arazoak bere horretan jarraitzen du.

Gizonen rola aldaketan

Ekitaldiko une zirraragarrienetako bat izan zen Amrita Dasguptak (Swayam-eko zuzendaria) moderatutako mahai-ingurua. Galdera nagusia hau izan zen: zer rola izan behar dute gizonak eta mutilek aldaketa honetan?

Historikoki, soilik erasotzaileak izan dira sentsibilizazio-kanpainen hartzaileak. Baina Reframe-n bestelako ikuspegia proposatu zen: gizonak, oro har, erantzule diren subjektu gisa. Izan ere, hausnartu zen beren maskulinitateak eraldatzeko eta botere-dinamika aldatzeko gai direla.

Hori bai, ohar garrantzitsu bat ekarri zuten hizlariak: gizonekin egiten den lana ezin da bihurtu keinuzko ekintza, ezta emakumeen lidergoarentzako baliabideak desbideratzeko aitzakia ere. Benetako konpromisoa da, kontu-ematearekin eta beti feminismoaren printzipioetatik abiatuta.



38. Zk.
Iraila
2025

Kultura popa, narratibak eta gizarte-aldaketa

Beste une indartsu bat izan zen komunikabideen eta artearen papera aitortzea. Reframe-n ez ziren aktibismoa apaingarri gisa tratatu, aldaketaren motor zentral gisa baizik.

Kultura herrikoiak, publizitateak, musikak, antzerkiak edo sare sozialetan biral bihurtutako bideo batek tabuetan kolpe egin eta legeak iristen ez diren elkarriketak ireki ditzake. Narratibek garrantzia dute: humanizatu, bizirik atera direnen ahotsak handitu eta ustekabeko lekuetan enpatia erein dezakete.

Politika publikoak: beharrezkoa eta premiazkoa

Reframe ez zen sinbolikoan geratu. Egitura zehatzei buruz hitz egiteko tarteak ere egon zen. Indar handiz azpimarratu zen: instituzio-marko sendo gabe, aldaketak ez direla mantentzen.

Parte-hartzaileek hainbat puntu giltzarritan bat egin zuten: lege argiagoak, aplikazio-mekanismo fidagarriak, datu-sistema sendoak eta bizirik atera direnen beharrak erdigunean jarriko

dituzten zerbitzuak. Guzti hau, erakundeek konpromiso erreal batekin lagunduta.

Eta, noski, dirurik gabe ez dago aldaketarik. Berririo salatu zen erakunde feministak eta intersektionalak aurrekontu minimoekin ari direla lanean. Finantzaketa egonkorrik gabe, planik ikusgarrienak ere erortzen dira.

Topaketaren ondoren geratzen dena

Amaieran, inork ez zuen aipatu "garaipen errazak" esaldia. Errealistagoa zein indartsuagoa zen esaldi bat errepikatzen zen: aldaketa bakarrik izango dela posible intersektionala, feminista eta kolektiboa bada.

Parte-hartzaileek hiztegi argiago batekin, lehentasun zehatzagoekin eta ibilbide-orri partekatu batekin atera ziren. Reframe izan zen, azken finean, erresilientziaren ospakizuna eta aldi berean egiteko dagoen guztiaren oroigarri deserosoa. Inspirazio eta errealismoaren nahasketa, airean galdera bat utzi zuena: prest al gaude aldaketa hau denboran sostengatzeko?



ALDAKETAREN HAZIAK EASO POLITEKNIKOKO IKASLEEKIN

Donostian ilusioz abiatu dugu hezkuntza ekosozialeko prozesua Easo Politeknikoko 2. mailako Ingurumen Hezkuntza eta Prebentzio ikasleekin. Hasieratik nabari zen ez zirela talde arrunt bat: egiten ari diren formazioak beste pizgarri bat ematen die, erneago eta kritikoago bihurtzen dituen ikasleak.

Bidaia indartsu hasi da. Lehenik, taldearen tenperatura hartzeko inkesta bat. Gero, bi tailer, bi ordukoak bakoitza, Ikertze-rekin batera dinamizatuak; horiek hezidetzan adituak dira eta ibilbide luzea dute prozesu eraldatzaileetan.

Hirugarren pauso bezala, baso-bainu bat egin zuten Uria mendian, Basona elkartaren eskutik, gorputzetik eta emozioetatik naturarekin berriz konektatzeko. Esperientzia paregabea izan zen ikasleentzat.

Era berean, sortu ziren elkarriketak inspiratzaileak izan ziren. Ekofeminismoaz aritu ziren, pertsonen eta ingurumenaren arteko lotura sakonaz, alegia. Halaber, naturaren eskubideez eta horrek guztiak gure egunerokoa nola zeharkatzen duen ere hausnatu zuten. Emozioak agerian, isilune esanguratsuak eta komunitate-sentimendu gero eta handiagoa somatzen zen.



Prozesu hau ez da hutsetik abiatu. Lau ikastetxetan jada ezarri dugu, eta esperientzia berriek ikaskuntzak eta gauzak aldatzeko gogoz datozen gazteen ahotsak gehitzen dituzte. Easo Politeknikokoa etapa berri bat da bide honetan, eta bereziki indartsua izango dela ematen du.

Argi dago: hezkuntza, natura eta ikuspegi feminista gurutzatzen direnean, ikasgelak bira bat ematen dute eta askoz interesgarriagoak bihurtzen dira: eraldaketa partekatua espazio bat.

MARRAZKI ERRALDOI BAT HONDARTZAN CALCUTA ONDOAN-EN 25 URTEMUGAGATIK

Calcuta Ondoan-ek 25 urte bete dituela ospatzeko, **urriaren 7an**, German Cedano Mongrout diziplina anitzeko artistak Santoshi Tuduren aurpegia marraztuko du Kontxako hondartzan. Santoshi emakume adibasia da, eta bazterkeriaren aurka borrokatzen duten emakumeen indarraren eta duintasunaren ikurra da.

Germanek dagoeneko bi marrazki egin ditu hondarrean gurekin elkarlanean, bere artearekin ikusgarritasuna eman zaio Calcuta Ondoan-ek dituen kausei. Marrazkia kamerarekin eta dronekin grabatuko da, lanaren handitasuna jasotzeko eta omenaldi hau jende gehiagorekin partekatzeko.

XXI. mendeko Indiaren errealitate ugarien eta kontraesankorren atzean, gero eta desberdintasun handiagoak eta oinarritzko eskubideen urraketak daude, bereziki tribuetako eta kasta baxuenetako emakumeenganakoak. Santoshi Tuduren emakume ausart horien ikurra da, ezagunak zein anonimoak direnak, baina mugimendu sozial eraldatzaileak sostengatzen dituztenak.

Marrazki horrekin, Santoshi Tuduren bezalako emakume guztiak aitortu eta ospatu nahi ditugu, mundua anonimotasunetik eraldatzen baitute.



MICOLET-EN ETA CALCUTA ONDOAN-EN ARTEKO ELKARLANA

Inpaktu soziala duen arropa eta liburuak.

Eman bigarren bizitza zure arropari eta behar ez dituzun liburuei, eta onurak zuzenean gure proiektuetara joango dira.

Egin dohaitza klik batekin!

Kosturik gabe zuretzat. Micoletek etxean jasotzen dizkizu zure liburuak edo arropa.

**Egin arroparen
dohaitza**



**Egin liburuen
dohaitza**



*Palestinako herriarekiko gure
elkartasuna adierazi nahi dugu
Calcuta Ondoan-GKE-tik.*

*Haien mina, itxaropena eta eguneroko
erresistentzia partekatzen ditugu.*

*Inork ez luke bere eskubiderik
oinarrizkoenak urratuak ikusi behar.*

*Bizitza guztiek merezi dute
duintasuna, bakea eta justizia*



AGENDA

AST
URRIA

07

Artea hondartzan Calcuta Ondoan-en 25 urtemugagatik
Kontxako hondartza, Donostia

10:00-15:00

NORTZUK GAREN

Calcuta Ondoan GKE onura publikoko elkarte da, Gipuzkoan 1999an sortua. Laguntza Humanitarioko eta Garapeneko proiektuak babesten ditugu Indian; xede izanik pertsonak eta taldeak garatzea, betiere herri gisa duten nortasuna eta erlijioa errespetatuz eta giza eskubideak eta genero-berdintasuna defendatuz. Gure inguruan kontzientzia kritikoa sustatzen dugu, Hain zuzen ere, Hegoaldeko herrialdeetan bazterkeria, injustizia eta pobretze egoeren kausak eta ondorioak aditzera ematen ditugu. Hori guztia, ikuspegi positibotik, elkartasuna, kultura-aniztasunaren aberastasuna eta desberdinarekiko errespetua bermatuz. Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta dago, AS/G8501/2001 zenbakiarekin (IFZ: G-20696175). Euskadiko GGKEen Koordinakundeko eta Zero Pobrezia Plataformako kide da, eta 2009an onura publikokotzat jo zen (36/2009 Dekretua).

Calcuta Ondoan elkarteko **BOLUNTARIOTZA** pertsona aktiboek eta konprometituek osatzen dute, eta horiek gabe gure lana ezinezkoa izango litzateke.

Animatu eta parte hartu!

HARREMANA



Calcuta Ondoan ONGD



calcutaondoan



Calcuta Ondoan ONGD




+34 943 431 849



info@calcutaondoan.org



Maestro Santesteban Kalea, 3 - 2ºB
20011 Donostia Gipuzkoa



iColabora!
calculaondoan.org

Zure ekarpenagatik onura fiskalak eskuratu ahal izango dituzu, onura publikoko elkarte deklaratuak baizik. Beraz, % 30erainoko desgrabazioa egin dezakezu PFEZan, zure kuotetatik edo dohaintzetatik. Garrantzitsua da ekarpenak egitean zure IFZ edo NANA adieraztea